

- Inicio
- Edición impresa
- Temas
- Tienda

2007 agosto 03

GARA > Idatzia > Gutunak

Myriam Goikoetxea Oiartzun

## Xanistebanak eta alkohola

Eusko Jaurlaritzaren Droga-mendekotasun gaietarako Zuzendaritzak «Alkoholik adingabekoei? Tantarik ez» kanpaina jarri du martxan, eta Oiartzunen ere bat egin dugu kanpaina horrekin.

Gure herrian, euskal gizartean, edari alkoholodunekin oso tolerantetarako garelako pentsatzen dugu. Gainera, uste dugu helduok ardura handia dugula gai honetan.

Hamaika bider aipatu izan dugu gure gaztetxoek gehiegi edaten dutela, pena dela hain gazteak izan eta jaietan nola ibiltzen diren ikustea... Egia da adingabeko neska-mutil askok gehiegi edaten dutela, bai jaietan, kalean, tabernetan, txosnetan... baita etxeetan ere. Baina egia da, aldi berean, helduok erosi, eman edota saltzen dizkiegula edari alkoholodunak. Eta bigarren egiaz ez dugu hitz egiten edo ez dugu hori ikusi nahiizaten.

Badakigu alkohola edatea helduon eskubideetako bat dela. Baina eskubideen gaineratik ardura dugu, gure adingabeko neska-mutilak babesteko ardura, besteak beste.

Xanistebanak heltzear dauden honetan azpimarratu nahi dugu egoera honekin ezin dugula jarraitu eta helduok garelako, nahitaez, gaztetxoek erreferenteak.

Horregatik guztiatik, bihar, larunbata, karpa txuri bat jarriko dugu Madalensoroko parkingean gaueko hamabietan. Bertan, nahi duenak alkoholometro proba egiteko aukera izango du.

Izan ere, neska edo mutil bat mozkortuta ikusten dugunean, pena sentitzen dugu, eta heldu bat ikusten dugunean, lotsa.

Oharra: alkoholometroan putz eginez 0,25 baino gehiago ematen baduzu, ondo egon zaitezke festarako, baina gogoratu ezin duzula autoa hartu.